

Euskal AEko pertsona okupatuak %58,6k lan egiten dute bizileku ez duten udalerri batean

Emakumeak gizonak baino neurri txikiagoan doaz beste udalerri batera

Euskal AEn 16 urte edo gehiagoko 531.182 pertsonak lan egiten dute bizileku ez duten udalerri batean, Eustaten datuen arabera. Zehazki, 473.263 pertsona okupatu (%52,2) doaz lan-kontuengatik beste udalerri batera lurralde beraren barnean, 39.408 (%4,3) Euskal AEko beste lurralde batera, 14.736 (%1,6) beste komunitate autonomo batera eta 3.775 (%0,4) atzerriara.

Sexuari begira, emakumeek gizonak baino neurri handiagoan dute lan egiten bizileku duten udalerri berean, %45,2 lehenek eta %38,0 bigarrenak; halaber, gizonak emakumeek baino gehiago handiagoak dituzte kasuetan non lanpostua lurraldeko beste udalerri batean dagoen (5,3 puntu gehiago) edo beste lurralde batean (1,0 puntu gehiago).

Euskal Aeko 16 urte eta gehiagoko biztanleria okupatua sexuaren arabera, lantokiari jarraiki (%). 2016

	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
Bizi den udalerrian	41,4	38,0	45,2
Bizi den lurralde historikoko beste udalerri batean	52,2	54,8	49,3
Beste lurralde historiko batean	4,3	4,8	3,8
Beste autonomia erkarte batean	1,6	1,8	1,4
Atzerrian	0,4	0,5	0,3
Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika

Araba da lurraldea higikortasun txikiena erregistratzen duena lan-kontuengatik, zeren pertsona okupatueta hamarretarik azpik lan egiten baitute bizileku duten udalerri berean, Gasteizek duen pisuagatik. Erlazio hori murriztu egiten da Gipuzkoan hamarretarik laura eta Bizkaian hamarretarik hirura.


Eskualdeka, lan-higikortasuna handiagoa da Gorbeia Inguruetan (%83,3k lan egiten dute beste udalerri batean), Plentzia-Mungian (%82,9k), Arabako Ibarretan (%81,7k), Arratia-Nerbioin (%80,3k) eta Tolosaldean (%79,2k). Aldiz, Arabako Lautada (%19,4k), Donostialdea eta Debagoiena (%54,2k) eta Errioxa Arabarra (%55,3k) dira lan-higikortasun txikieneko eskualdeak.

Udalerriak, lan-kontuengatik lekualdatzea, bereziki, gertatzen da biztanleria urriko udalerrietan (1.000 biztanle baino gutxiagokoetan), nola diren Gaztelu, Sukarrieta, Fruiz eta Arantzazu, zeinetan hamar pertsonatik bederatzik lan egiten duten bizilekua ez den beste udalerri batean. Alderantzizko norabidean, lan-higikortasunik txikiena hiriburuetan erregistratzen da, eta baita tamaina erdiko udalerri batzuetan ere, nola Irunen, Oñatin, Arrasaten eta Azpeitian, eta Arabako udalerri batzuetan nola Guardia, Eskuernaga eta Eltziego.

Oro har, araua da ezen, zenbat eta tamaina handiagokoa izan udalerria, orduan eta kanporako lekualdatze gutxiago dagoela. Horrela, bizilekuko udalerrian lan egiten dutenak %22 dira 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan eta %68,8 hiriburuetan, nahiz eta 40.001-100.000 biztanleko udalerrietan proportzioa apur bat txikiagoa den (%26,7) 10.001-40.000 biztanlekoetan baino.

Bestalde, hiriburuen arteko aldeak aipagarriak dira: horrela, Gasteizen lan-higikortasunak eragiten dio, batez ere, hiriko biztanleria okupatuaren %15,1; Donostian, ordea, %34,3ri, eta %41,6ri Bilbon.

Euskal Aeko 16 urte eta gehiagoko biztanleria okupatua udalerrri tamainaren arabera, lantokiari jarraiki. 2016



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika

Euskal AEko lurralde arteko lekualdatzeei doakienez, Araban bizilekua duten pertsona okupatuak, bereziki, Bizkaira doaz (%4,8) eta %2 bakarrik Gipuzkoara; halaber, Bizkaian berdintsu dira banatzen lekualdatzeak Araba (%2,3) eta Gipuzkoa (%2) artean; azkenik, Gipuzkoako okupatuen %2,3k dute lanpostua Bizkaiko udalerrietako batean eta %0,9k Arabako batean.

Ikuspegi zabalago batetik, Arabak beste lurraldeetatik 13.700 langile ditu hartzen, Gipuzkoak 12.220 eta Bizkaiak 10.229.

Gipuzkoan bizilekua dutenen %0,5 doaz atzerria lanera, Euskal AEko batezbestekoaren gainetik, zeren muga ondokoa baita Gipuzkoa. Bizkaikoak batezbestekoan dira (%0,4) eta neurri txikiagoan Arabakoak (%0,3).

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62